

Euskal Autonomia Erkidegoko Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Konfederazio Koordinatzailea

PFEZ 2008

IRISGARRITASUN-BALDINTZARIK GABEKO HAUTESKUNDEAK



% 1 Ocan berziklatutako paperean inprimatua

Gozoratu...

ARABA

Beato Tomás de Zumárraga, 96-98 behea
Tel. eta Faxa: 945 225 516
01009 VITORIA-GASTEIZ
e-mail: eginez@euskalnet.net
www.eginez.org

GIPUZKOA

Ondarreta pasealeku 5.ean
Tel.: 943 316 770 • Faxa: 943 316 379
20018 DONOSTIA
e-mail: elkartu@elkartu.org
www.elkartu.org

BIZKAIA

Blas Otero, 63 behea
Tel.: 94 405 36 66 • Faxa: 94 405 36 69
48014 BILBO
e-mail: fekoor@fekoor.com
www.fekoor.com

KONFEDERAZIOKO KIDE DIREN ELKARTEAK

GIPUZKOA

- **AGAEB**
Bizkarrezur bifidodunen Gipuzkoako elkarte.
- **AGAER**
Gaixotasun erreumatikoek erasandako Gipuzkoako elkarte.
- **AGE**
Gipuzkoako epilepsiaren elkarte.
- **ANAIIDIA**
Gutxitasuna duten pertsonekiko kristau senidetazuna.
- **ASPARGUI**
Gipuzkoako parkinson elkarte.
- **BIZI-BIDE**
Fibromialgia eta astenia kronikoaren Gipuzkoako elkarte.
- **Debabarreneko Gutxitu Fisikoak.**
- **LEZDI**
Lezoko gutxituen elkarte.

BIZKAIA

- **A.C.C.U.**
Crohn-en eritasuna eta ultzeradun kolitisa duten gaixoen elkarte.
- **A.D.E.L.E.S.**
Lupus eritematoso sistemikoa duten gaixoen elkarte.
- **ADEMBI**
Bizkaiko esklerosi anizkoitzaren elkarte.
- **ALCER**
Giltxurruneke gaixotasunen aurkako elkarte.
- **ASEBI**
Asociación bizkaia elkarte espiná bífida e hidrocefalia.
- **Gutxitasun fisikoa duten pertsonekiko gurasoen bizkaiko elkarte.**
- **Lea-Artibaiko ahalurri fisikoen elkarte.**
- **AHEVA**
Eusko hemofiliaren elkarte.
- **ARGIA**
Ostomizatuen eta inkontinenteen euskal elkarte.
- **ASPANOVAS**
Bizkaiko haur minbizidunen gurasoen elkarte.
- **AUXILIA**
- **A.V.A.H.**
Bizkaiko ataxia hereditarioen elkarte.
- **B.E.N.E.**
Bizkaiko eritasun neuromuskularren elkarte.
- **BIDARI**
Gutxitasun fisikoa duten pertsonekiko ermuko elkarte.
- **BIZKEL**
Bizkaiko bizkarmuinaren kaltetuak.

- **CODISFIBA**
Barakaldoko gutxitasun fisikoa duten pertsonekiko elkarte.
- **FRATER**
Elbarrituen eta gaixoen kristau elkarte.
- **L.E.V.A.R.**
Artritis reumatoidea duten pertsonekiko elkarte.
- **EFELA**
Gutxitasun fisikoa duten pertsonekiko arratiko elkarte.

ARABA

- **EGINAREN EGINEZ**
Arabako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonekiko Elkarte.

Eusko Jaurlaritzako
Justizia, Lan eta Gizarte
Segurantzza Sailak
diruz, lagundutako
argitalpena.

Elkarte horiekin
harremanetan jarri nahi
baduzu, jo ezazu zure
probintziako
koordinadorara

a u r k i b i d e a

O r o k o r r a

1. ELKARTEren Editoriala: Hautesle IKUSEZINAK? 4
2. PFEZ 2008 6

A r a b a

1. Martxoaren 8 13
2. Mugikortasun-Plana 14
3. Topaketa Politikoekin 16
4. Udal Ordenantza: Irisgarritasun-baldintzak hobetzeari buruzkoa ... 17

B i z k a i a

1. Fekoor-ek Laguntzarako Teknologiei eta Autonomia
Pertsonalariburuzko mintegi bat antolatu du 19
2. Fekoorrek eta Bizkaiko Kirol Egokituen Federazioak
Bizkaiko II. Boccia Txapelketa antolatu dute 21
3. Lonja eta etxabeek igogailuak edo bestelako laguntza teknikoak
instalatzeko beharrezkoa den espazioa utzi behar dutela eta
berriztatze-lanak ordaintzen lagundu behar dutela ebatzi du
Auzitegi Gorenak 23
4. Fekoorren II. Jardunaldiak, "Giza eskubideak eta gutxitasunak:
komunitatean bizitza independentea lortzearen alde" 24

G i p u z k o a

1. Elkartze-Mugimendua 25
2. Opor Programa 25
3. Ordezkatze-Lana 26

ELKARTERen Editoriala

Hautesle IKUSEZINAK?

Azken hauteskunde hauetan oso garbi geratu da boto bakoitzak bere balioa duela eta erabakigarria izan daitekeela. Boto bakar batek gehiengoan dinamika alda dezake, lehendakaria zein izango den erabaki dezake, eta datozen lau urteetako bilakaera politikoa zehaztu dezake. Boto erabakigarri hori, hain zuzen, pertsona minusbaliatu askoren poltsikoetan geratu diren botoetako bat izan liteke, asko geratu baitira demokraziaren oinarri-zko eskubideetako bat –ordezkari politikoa aukeratzeko eskubidea– gauzatu ezinik.

Beste behin ere, gure kolektiboko pertsona askok ezin izan dute bozkatzeko eskubidea normaltasunez eta gainerrako hautesleen baldintza berberetan gauzatu. Herrialde honetako pertsona minusbaliatuok hauteskunde guztietan behin eta berriz jasan behar izaten ditugu trabak: hauteslekuetako, postetxeetako eta hautesle errolden bulegoetako traba arkitektonikoak; garraiobide egokiturik eta bereziki beraientzat gordetako aparkaleku ez izatea; gutxitasunak dituzten pertsonen beharretara egokitutako prozedurarik ez egotea, botoak ezkutuan eman ahal izateko; eta hauteskundeetako informazioa denentzat egokiak ez diren formatuetan zabaltzea, besteak beste.

Erakundeek, inongo salbuespenik gabe, hauteskundeetan herritar guztien parte-hartzea bermatu behar



dutela zehazten da Eusko Legebiltzarrrerako Hauteskundeetako 5/1990 Legean. Baina, botoa emateko eskubidea gauzatu ahal izateko, ezinbestekoa da, formula tradizionalaz gain, prozedura berriak abian jartzea eta prozedura horien bidez hautesle guztiei beren botoa dagokien hauteskunde-mahaian modu pertsonal eta errazean emateko modua ahalbidetzea.

Hala ere, badirudi ez dagoela demokrazian gaitzesgarri eta onartezina den egoera hori gainditzeko gai den Legerik, nahiz eta egoera horrek hainbeste pertsonari demokraziaren



oinarrizko eskubidea, boto unibertsa-
laren eskubidea, gauzatzea eragotzi.

Hori dela eta, orain inoiz baino ozena-
go eskatu nahi ditugu zeharkako po-
litikak, demokraziaren gabezia honi
aurre egiteko, eta berdintasun erreala
eta eraginkorrerako bidean aurrera-
penak lortzeko.

Ezerezean geratzen diren hauteskun-
deetako promesetatik harago, Admi-
nistrazioko maila guztietan ardurak
dituzten pertsonen konpromiso pu-
blikoak nahi ditugu, behingoz berdin-
tasunean oinarritutako gizarte justua-
go bat lortu ahal izateko.

Aitzakiak eta luzapenak alde batera
utzi eta gure kolektiboak behin eta
berriz jasaten dituen giza eskubideen
urraketak eta desberdintasunak gain-
ditzeko zer egingo duten, nola egingo
duten eta noiz egingo duten azaltze-
ko exijitzen diegu herritarrek hautatu-
tako karguei.

Demokraziaren gabezia
hori dela eta, oso zaila
gertatzen zaigu gi-
zakiak lor dezakeen
gauzarik baliotsuena
gauzatzea: bakoitzak
bere bizitzako proiektu-
a garatu ahal izatea,
eta bizi garen, lan egi-
ten dugun eta zergak
ordaintzen ditugun
komunitatean modu
autonomoan eta ber-
dintasunezko egoeran



erlazionatu ahal izatea. Nahikoa da.
Ezin dizkiegu gauzak zaildu lehenik
zailtasunak dituztenei.

Borroka, lan eta esfortzu handiko urte
hauetan guztietan lortutako esperien-
tziari esker, sobera dakigu eskubi-
deak ez direla eskatu bakarrik
egiten, irabazi egiten direla.

Euskadin 160.000 pertso-
nak dute gutxitasunen
bat, eta 160.000 pertso-
na horien botoak era-
bakigarriak izan
daitezke hurren-
go hauteskun-
deetan herrial-
de hau nork
gobernatuko
duen eraba-
kitzeko.



PFEZ 2008

ARABA, BIZKAIA ETA GIPIZKOAKO

LURRALDE HISTORIKOAK

EZINTASUNEKIN ZERIKUSIA DUTEN ARAUAK

Lan-Etekinak

HOBARI OROKORRAK

- a) **Aldea 7.500 eurokoa edo txikiagoa bada, 4.650 euroko hobia aplikatuko da.**
- b) **Aldea 7.500,01 eta 15.000 euro artekoa bada, hobia hau aplikatuko da: 4.650 euro ken aipatutako aldeari 7.500 euro kendu ondoren ateratzen den emaitza bider 0,22 eginda ateratzen den zenbaterkoa. $4.650 \text{ €} - (\text{Etekin garbia} - 7.500 \text{ €}) \times 0,22$.**
- c) **Aldea 15.000 euro baino handiagoa bada, 3.000 euroko hobia aplikatuko da.**

Zerga-oinarrian lanetik eratorritzen ez diren etekinak konputatuz gero eta etekinaren kopuruak 7.500 euro gainditzen baditu, 3.000 euroko hobia aplikatuko da.



HOBARI GEHIGARRIAK: EZINTASUNAK DITUZTEN LANGILEAK

- a) **%33ko urritasun-maila edo handiagoa eta %65eko urritasun-maila baino baxuagoa duten langile ezinduek %100eko hobia jasoko dute.**
- b) **Mugikortasun murriztua eta %33ko urritasun-maila edo handiagoa eta %65eko urritasun-maila baino baxuagoa duten langile ezinduek %250eko hobia jasoko dute. Mugikortasun murriztua duten pertsonatzat hartuko ditugu urritasun-maila baieztatzeko, aitortzeko eta neurtzeko abenduaren 23ko 1.971/1999 Errege-dekretuko III. Eranskineko A, Beta C ataletan zehazten diren egoeretan daudenak edo eranskin horretako D, E, F, G, edo H ataletan 7 puntu edo gehiago lortzen dituztenak. %65eko urritasun-maila edo handiagoa duten langileak ere talde honetan sartuko dira.**

Hobariak ezarri ondoren lortzen den lan-etekin garbia ezin izango da negatiboa izan.

Familia-kenkariak eta kenkari pertsonalak

KENKARIAK, ONDORENGOENGIK

1°	547 euro urtean, lehenengoagatik.
2°	677 euro urtean bigarrenagatik.
3°	1.145 euro urtean hirugarrenagatik.
4°	1.353 euro urtean laugarrenagatik.
5°	1.769 euro urtean bosgarrenagatik eta ondorengo bakoitzarengatik.

Zergadun bakoitzarekin bizi den sei urtetik beherako ondorengo bakoitzeko, aurreko atalean zehaztutakoaren arabera dagokion kenkariaz gain, beste 313 euro kenduko dira urtean.

KENKARIAK, ONDORENGOEI URTEKO MANTENUA ORDAINITZEAGATIK

Epaileek hala erabakita beren seme-alaben urteko mantenua ordaintzen duten zergadunek ordainketa horien %15eko kenkaria aplikatzeko eskubidea dute. Seme-alaba bakoitzeko ezarritako gehienezko kenkaria aurreko atalean seme-alaba bakoitzagatik zehazten den kenkariaren %30 da.

KENKARIAK, AURREKO AHAIDEENGIK

Urte natural osoan modu jarraitu eta iraunkorrean zergadunarekin bizi izandako aurreko ahaide bakoitzeko 261 euroko kenkaria aplikatu ahal izango da (255 euro Gipuzkoan).

Kenkari hau aplikatzeko, kasu hau aurreko paragrafoan deskribatutako elkarbizitzarekin parekatuko da: aurreko ahaidea gizarte-zerbitzuen foru-sarearen edo parekatuaren barruan ez dagoen egoitza batean bizi den urte natural osoan, modu jarraitu eta iraunkorrean, eta egonaldiaren gastuak ondorengo ahaideak bere ondaretik ordaintzea.

KENKARIAK, EZGAITASUNAGATIK

1. Zergadun ezgaitu bakoitzeko, jarraian zehazten den kenkaria ere aplikatuko da arauz ezartzen den minusbaliotasun-mailaren eta hirugarren pertsonengandik jaso beharreko laguntzaren arabera:

MINUSBALIOTASUN MAILA	ARABA/BIZKAIA	GIPUZKOA
Minusbaliotasuna %33koa edo handiagoa, eta %65 baino txikiagoa denean	729	850
Minusbaliotasuna %65ekoa edo handiagoa denean (mendekotasun ertaina)	1.041	1.200
Minusbaliotasuna %75ekoa edo handiagoa denean, eta hirugarren pertsonen laguntzagatik 15 puntutik 39 puntura bitartean lortzen denean (mendekotasun larria)	1.249	1.400
Minusbaliotasuna %75ekoa edo handiagoa denean, eta hirugarren pertsonen laguntzagatik 40 puntu edo gehiago lortzen denean (mendekotasun handia)	1.561	2.000

Gipuzkoan, mendekotasun-egoera aitortu zaien zergadunek 60 urtetik gorakoak izan beharko dute.

Gipuzkoan, EAEko arazuko xedapenen arabera mendekotasun-egoera aitortu zaien pertsonen mendekotasun-maila bat ez badator aurretik aipatutako kalifikazioekin, pertsona horiei 714 euroko kenkaria aplikatu ahal izango zaie.

Aurreko paragrafoan aipatutako minusbaliotasun maila eta bertan adierazitako puntuak **abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuak I. eta II. eranskinetan** ezarritako eran neurtuko dira, bai eta **2007ko apirilaren 20ko 504/07 Errege Dekretuak, Autonomia pertsonala sustatu eta besteren beharra duten pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak** ezarritako mendekotasun egoera baloratzeko baremoa onartzen duenak, jasotako moduan ere.

2. **Kenkari hori bera** aplikatuko da, era berean, **ondorengo edo aurreko ahaide, ezkontide edo izatezko bikote-lagun edo laugarren mailarainoko zeharkako ahaide bakoitzeko, hura barne, horren adina edozein dela ere, baldin eta pertsona hori, zergadunaren menpeko izanik eta bere urteko errentak lanbidearteko gutxieneko soldataren bi halako izan gabe, ezgaitua bada.**

Era berean, **kenkari hau egin daiteke ezgaitua zergadunari lotuta badago tutoretza edo harrera arazoia direla medio**, eta aurreko paragrafoan adierazitako errenta maila betetzen bada. Adingabeak babesteko gaietan eskudun den entitate publikoarekin egon beharko du hitzartuta tutoretzak edo etxeko harrerak.

3. Aurreko idatz-zatian aipatutako ahaide edo asimilatuen artean ageri ez den **65 urteko edo hortik gorako pertsona bakoitzeko, 1. idatz-zatian ezarritako kenkariak aplikatuko dira zergadunarekin bizi bada eta bere urteko sarrerak, errenta salbuetsiak kanpoan utzita, lanbidearteko gutxieneko soldataren halako bi baino txikiagoak badira, betiere kontuan hartuta minusbaliotasun maila eta hirugarren pertsonengandik jaso beharreko laguntza.**



4. **Mendetasuneko pertsonak autolikidazioa aurkezten badu zerga honengatik, bi aukera izango ditu: kenkari osoa berak egitea edo, bestela, mendeko pertsonaren ardura duen zergadunak egitea kenkari osoa.** Bigarren aukera hautatuz gero, eta ezgaituak ardura duen bat baino gehiago badu, kenkaria zati berdinetan hainbanatu eta aplikatuko da zergadun bakoitzeko.

URRITASUN-MAILA EGIAZTATZEA (PFEZ Araudia)

1. Ezintasuna Zuzenbidean onartutako frogabideetako baten bitartez froga daiteke.

Hala ere, **legezko ezintasuna egiaztatutzat hartzeko** ezinbestekoa da:

- a) Foru Aldundiko organo eskudunak, Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak edo dena delako autonomia erkidegoan horren pareko den organo eskudunak ziurtagia. **Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ezintasun-mailari buruz emandako ziurtagiria, edota Gizarte Segurantzak emandakoa, ezintasun iraunkor osoa, erabatekoa edo baliaezintasun handia dagoela frogatzeko.**

Horri dagokionez, ziurtagiriak ez du izan behar horrexetarako berriaz emana. Beraz, aipatutako organoek emandako zeinahi agiri izango da baliozkoa, baldin eta bertan ezintasunaren gradua argi eta garbi adierazten bada.

- b) **Gizarte Segurantzak edo Klase Pasiboen Araubide Bereziak aitortutako prestazioa jasotzea ezintasun iraunkorragatik.**

Hain zuzen ere, %33ko ezintasuna edo handiagoa frogatutzat emango zaie **erabateko ezintasun iraunkorra edo ezintasun handia** aitortuta daukaten Gizarte Segurantzako pentsiodunei eta **zerbitzurako ezintasun iraunkorragatik** erretiro pentsioa aitortuta daukaten klase pasiboetako pentsiodunei.

Nolanahi ere, **epaile batek pertsona baten ezintasuna adierazten badu** Kode Zibilean ezarritako arazoietako batengatik, **zerga**

honi buruzko arautegian %65eko ezintasuna edo handiagoa daukaten pertsonen ezarritako xedapen bereziak aplikatuko dira.

2. Zergari buruzko Foru Arauan aipatutako hobariak edo kenkariak aplikatzeko, ezintasuna eragiten duten inguruabarrak Zergaren sortzapenean gertatu direla frogatu behar da.

Hala ere, berriaz adierazita badago ezintasuna iraunkorra dela edo Zergaren sortzapena ezintasunaren kalifikazioaren baliozotasun aldian gertatu bada, ez da beharrezkoa izango ezintasunaren frogagiria sortzapen egunari buruzkoa izatea.

KENKARIAK ADINAGATIK

65 urtetik gorako zergadun bakoitzeko, **313 euroko kenkaria** aplikatuko da (**306 euro Gipuzkoan**).

Zergadunak **75 urte baino gehiago baditu**, aurreko paragrafoan aipatutako kenkaria **573 eurokoa** izango da (**561 euro Gipuzkoan**).

Zergaren sortzapen egunean dagoen egoera aintzat hartuz zehaztuko dira kapitulu honetan jasotako kenkariak aplikatzeko kontuan hartu behar diren **zirkunstantzia pertsonalak eta familiarak**.

Kenkari horiek konputatzeko garaian, kalkulua inoiz ez da egingo kenkariak aplikatzeko exijitutako zirkunstantziak gertatu diren urte naturaleko egun kopuruaren proportzioan.

Aurreko idatz-zatian xedatutakoa xedatuta ere, **kenkarirako eskubidea**

sortzen duen pertsona zergaldia-
ren barruan hil bada, kenkariak
aplikatzeko kontuan hartuko di-
ren zirkunstantzia pertsonalak eta
famiariarenak heriotzaren egunean
dagoen egoera aintzat hartuz ze-
haztuko dira. Kenkariaren zenbate-
koa ez da proportzionalki murriz-
tuko egun horretara arte.

KENKARIA, EZGAIUAREN ONDARE BABESTUARI EGINDAKO EKARPENENGATIK

Zergadunek %30eko kenkaria egin
dezakete, urtean gehienez 3.000
eurorainokoa, ezgaituaren ondare
babestuari egindako ekarpenen-
gatik. Pertsona ezgaituaren ondarea
babestu eta Kode Zibila aldatzeko
azaroaren 18ko 41/2003 Legeak,
Auzibideratze Zibilaren Legeak eta
horri buruzko zerga-arautegiak
erregulatzen du hori.

Aurreko idatz-zatian aipatzen den
kenkaria egin dezakete ezgaitua-
ren zuzeneko nahiz zeharkako
ahaideek, hirugarren mailarai-
nokoeak, hori barne, bai eta ezgai-
tuaren ezkontideak edo izatezko
bikotelagunak edo ezgaitua tu-
toretza edo harrera-araubideari
jarraituz hartua duten pertsonak
ere.

Inoiz ere ez dute emango kenkari
hori egiteko eskubiderik ondare
babestuariaren titularra den ezgai-
tuak berak egindako ekarpenek.

Diruzkoak ez diren ekarpenak
badira, ekarpenaren zenbateko-
tzat hartuko da irabazi asmorik
gabeko entitateen zerga araubi-
deari eta mezenasgoaren aldeko
zerga pizgarriei buruzko Foru
Arauek 20. artikuluan jasotakoa
kontuan hartuz ateratzen den
zenbatekoa.

KENKARIAK OHIKO ETXEBIZITZAGATIK

OHIKO ETXEBIZITZA ERRENTAN HARTZEAGATIK

1. Zergaldian **ohiko etxebizitzaren
alokairua ordaintzen duten** zer-
gadunek zergaldian ordaindutako
kopuruen **%20ko kenkaria** egin
dezakete, **gehienez urtean 1.600
euroraino.**

Aldiz, **35 urtetik beherako zer-
gadunentzat, familia ugariaren
titularrak direnentzat, ezintasun
iraunkor osoa, erabatekoa edo ba-
liaezintasun handia aitortuta du-
tenentzat, eta artikulua honetako
4. artikuluan aipatzen direnentzat,**
aurreko paragrafoan aurreikusitako
kenkaria **%25ekoa** izango da,
eta **gehienez urtean 2.000
eurokoa.**

2. Zerga sortzen den egunean dagoen
egoerari begiratuko zaio, zergadu-
naren adina edo familia ugariaren
titulartasuna zehazteko.

3. **Batera tributatzea** aukeratzen
bada eta **kenkari horretarako es-
kubidea dutenak pertsona bat bai-
no gehiago badira, batzuk 35 ur-
tetik beherakoak eta beste batzuk
adin horretatik gorakoak,** aurreko
1. idatz-zatiaren bigarren paragra-
foan ezarritako portzentaje eta
muga aplikatuko dira.

4. **Epaileak erabakita, familiaren etxe-
bizitzaren alokairua ordaintzeko
betebeharra zergadunari bakarrik
ezarri bazaio, horrek eskubidea**
izango du autolikidazioan artiku-
lu honetan aipatzen den kenkaria
egiteko. Betebehar hori bi zerga-
duni ezarri bazaie, kenkaria bien
artein hainbanatuko da, eta bakoi-
tzaren autolikidazioan egingo da
norberari dagokion proportzioan,
artikulu honen 1. idatz-zatiko bi-
garren paragrafoan jasotako port-
zentajea eta muga aplikatuta.

OHIKO ETXEBIZITZA EROSTEAGATIK

1. Zergadunek **ohiko etxebizitza erostean zergaldian inbertitutako kopuruaren %18ko kenkaria** egin dezakete, beren kargura joan diren erosketa gastuak barne hartuta.

Era berean, zergaldian ordaindutako interesen **%18ko kenkaria** egin dezakete, ohiko etxebizitza erosteko **besteren kapitalak erabiltzeagatik**, zergadunen kargura joan diren besteren finantzaketak sortutako gastuak barne.

2. **Urtean gehienez 2.160 euroko kenkaria** egin daiteke, aurreko 1. idatz-zatian aipatzen diren kontzeptuen baturarengatik.

3. Zergadun bakoitzeko aurreko 1. idatz-zatian aipatzen diren kontzeptuengatik egindako **kenkarien zenbatekoen batura ez da 36.000 euroko zifratik gorakoa izango, zergaldi jarraituen denbora osoan**. Zifra horri gutxituko zaio, hala badagokio, berrinbertsioagatik salbuetsita dagoen

ondare irabaziaren zenbatekoari %18 aplikatuz ateratako emaitza.

4. Zergaduna **35 urtetik beherakoa bada edo familia ugariaren titularra bada, eta 7. artikulua aipatzen dituen zergadunen kasua bada**, berezitasun hauek aplikatuko dira:

a) Aurreko 1. idatz-zatian jasotako pertzentajeak **%23** izango dira, artikulua honetako 5. idatz-zatiko
b) letran aipatzen diren kasuetan izan ezik.

b) Aurreko 2. idatz-zatian aipatzen den **urteko gehieneko kenkaria 2.760 eurokoa** izango da, artikulua honetako 5. idatz-zatiko b) letran aipatzen diren kasuetan izan ezik.

Batera tributatzea aukeratzeko bada eta kenkari horretarako eskubidea dutenak pertsona bat baino gehiago badira, batzuk 35 urtetik beherakoak eta beste batzuk adin horretatik gorakoak, idatz-zati honetan ezarritako portzentajeak eta muga aplikatuko dira.

5. Artikulu honetan jasotako ondorioetarako, **ohiko etxebizitza eros-tearekin parekatuko dira:**

a) Ohiko etxebizitza **birgaitzeko** erabili diren diru-kopuruak.

b) Arauzko eran ezarritako formalizazio- eta erabilera-baldintzak betez, kreditu-entitateetako kontuetan gordailatzen diren kopuruak, baldin eta kenkarirako eskubidea sortu duten kopuruak ohiko etxebizitza erosi edo birgaitzeko bakar-bakarrak erabiltzen badira, kontua ireki denetik 6 urte igaro baino lehen.

Ez da betegabetzat hartuko erabilera-baldintza, baldin eta kenkarirako eskubidea sortu duten diru-kopuruak osorik sartzen badira berriro kreditu entitate berean,



edo beste entitate batera osorik eramaten badira zergaren sortza-pena gertatu baino lehen.

Zergaduna letra honetako lehen paragrafoan aipatzen den epea amaitu aurretik hiltzen bada, **etxebizitza-kontuko** kopuruak ohiko etxebizitzaren erosketan edo birgaikuntzan erabiltzeko obligazioa ez da bete gabekotzat hartuko.

Zergadunek **ezingo dute atzera kendurarik egin** letra honetan zehar aipatu ditugun kontuetan jarritako diru-kopuruak, kendurak aplikatzeko eskubidea eragin dutenak, erabili ostean.

c) Arauz finkatzen diren kasuak.

6. **Birgaikuntzat** hartuko dira ja-beak bere ohiko etxebizitzan egindako obrak, baldin eta ebazpen batek **jarduketa babestutzat kalifikatu edo aitortu** baditu Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuak, ondare hiritartua eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera, edo, hala badagokio, **babesteko jarduketatzat kalifikatu badira** uztailaren 1eko 801/2005 Errege-dekretuak edo antzekoak diren ordezko arauak ezarritakoari jarraituz.

7. **Epaileak erabakita**, zergadunari bakarrik ezarri bazaio **familiaren etxebizitzarengatik** aurreko 1. idatz-zatian aipatzen diren diru-kopuruetako bat **ordaintzeko betebeharra**, horrek eskubidea izango du autolikidazioan artikululu honetan aipatzen den kenkaria egiteko. Betebehar hori bi zergaduni ezarri bazaie, kenkaria bien artean hainbanatuko da, eta bakoitzaren autolikidazioan egingo da norberari dagokion proportzioan, artikululu honen 4. idatz-zatian jasotako portzentajeak eta muga aplikatuta.

8. Zerga honen ondorioetarako, **ohiko etxebizitzatzat** hartuko da zergadunak, **hiru urteko epe jarraituan, bizileku gisa daukana**. Hala ere, etxebizitza ohikoa izan dela joko da, **epe hori igaro ez arren, zergaduna hiltzen bada, edo ezinbestez etxebizitzaz aldatzera behartzen duten beste zirkunstantzia batzuk gertatzen badira, hala nola: etxebizitza ez egokitzea zergadunaren edo horrekin bizi den ondorengo edo aurreko ahaidearen, ezkontidearen edo izatezko bikote-lagunaren ezgaitasun-mailara, edo zergaren kuota osoan kenkaria egiteko eskubidea ematen duen pertsonarenera; senar-emazteak banantzea edo izatezko bikotea desegitea; lantokia aldatzea; lehen enplegua edo beste bat lortzea; aipatutako epean etxebizitza ordaindu ezina, arrazoi ekonomikoak direla-eta; edo antzeko beste egoera batzuk gertatzea.**

Ohiko etxebizitzaren kontzeptutik kanpo geratuko dira lorategiak, parkeak, igerileku eta kirol-instalazioak, garajeak eta, oro har, **eranskinak eta etxebizitza bera ez diren elementu guztiak**. Aldiz, elementu horiek kontzeptu horren barruan sartuko dira, etxebizitzarekin batera finka erregistratzen bakarria osatzen badute.

Familia unitateko kideak ondasun higiezin hiritar baten baino gehiagoren titularrak badira, ondasun horietako bat bakarrik hartuko da ohiko etxebizitzatzat. Horretarako, familia-unitateak bere bizitza-interesen eta harreman pertsonal, sozial eta ekonomikoen gune nagusitzat duena hartuko da ohiko etxebizitzatzat.

Martxoaren 8

Beste urte batez, ezgaitasun fisikoa duten emakume arabarrek, eginaren eginezek ordezkatuta, Gasteizko kaleak hartu dituzte, talde feministekin eta sindikatuekin batera, emakume GUZTIEN diskriminazio-egoera salatzen, bai eta gutako askok ezgaitasunagatik, etniagatik, jatorriagatik, aukera politikoagatik eta abarregatik jasaten dugun diskriminazioa ere.




Martxoaren 8an Gasteizen egin zen manifestazioaren burua.



Lan-protestetako batzuk manifestazio-amaieran; izan ere, lan munduko arazoek emakumeei eragiten diete gehien.

Berriro ere aipatu da **abortuaren** gaiarekin bizi dugun egoera, epeen legearen proiektua dela eta, eta **krisiak** EMAKUMEEN egoeran duen eragina ere aipatu da. Emakumeen borrokaren adibide dira etxeko laguntzako eta Ariznavarra egoitzako langileen borroka, beste batzuen artean.

Martxoaren 4an, martxoaren 8aren inguruan antolatutako jardueren esparruan, zine-forum bat antolatu zen **"Taberna el 70"-n, eta "4 meses, 3 semanas, 2 días"** filma proiektatu zen bertan. Ceacescuren garaiko Errumaniako bi emakumeren egoera azaltzen da film horretan, bai eta abortuaren inguruko presioak, beldurrak eta tentsioak ere.



Mugikortasun-Plana



Joan den martxoaren 16an, Irisgarritasunari buruzko Udal Kontseiluan parte hartu genuen. Saio monografikoa izan zen, eta udalbatzaren MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN ETA ESPAZIO PUBLIKOAREN PLANA jaso zen.

Hiriko mugikortasuna aldatzea proposatzen zen, eta, batez ere, oinezkoentzako espazioak gehitzea. Honako sare hauek aurkeztu ziren garraiobide desberdinen arabera, hiriko mapan, elkarren artean lotuz, mugikortasunerako plan integral bat osatzen dutenak:

1. SAREA: IBILGAILU PRIBATUEN SAREA

Oinarrizko bideen sare bat sortzea. Bide nagusietatik igarotzeko lehentasunak. Auzo batetik bestera igarotzea. Etxadi handiak sortzea: ibilgailuentzako eta oinezkoentzako guneak garbi mugatzen dituzten espazioak, ibilgailuen trafikoa mugatuta dutenak (bizilagunen ibilgailuak, zamalanetako ibilgailuak, larrialdi-ibilgailuak eta garraio publikoa soilik sar daitezke).

Aparkaleku-plan bati buruz ere hitz egin zen: espazio publikoaren kaltetan izan gabe aparkatu ahal izateko ekintzei eta araudiari buruz.

2. SAREA: BIZIKLETA-SAREA

Gaur egun, arazo nagusia da ez dagoela bide nagusien arteko loturarik. Sare bereizi bat sortu nahi da, jarraitua eta segurua, eta azpiegitura-erraztasunak eman nahi dira (bideak, aparkalekuak...). Plan Ziklista Gidatzaile bat landuko da.

3. SAREA: OINEZKOEN BIDEEN SAREA

Oinezkoen modua. Oinezkoentzako ardatzak sortzea, seguruak eta jarraituak. Pertsonentzako espazioak gehiagotu nahi dira, ibilgailu pri-

batuen kaltetan. Hiriko bidexkak zabaldu nahi dira: oinezkoentzako bideak izango dira, sormen-, kultura- eta natura-izaera izango dutenak, eta oinezkoen eta bizikleten mugikortasunari lehentasuna emango diotenak.

4. SAREA: GARRAIO PUBLIKOKO SAREA

TUVISAren berrantolaketa aurkeztu zen. Egungo hamazazpi lineak zazpi ibilbide handitan banatuko dira. Gainera, autobus gehiago egongo dira (63 ibilgailu izango dira), eta bidaiarien berinapeko itxaro-denbora egungo 15 minutetatik 10 minutura pasako da.

TUVISAren birmoldaketa horrek aldaketa handiak ekarriko ditu une honetan. Bide Publikoen Zinegotziak, Joaquín Estebanek, kontseiluaren bileran jakinarazi zuenez, ibilbide lezuzuzenak egin nahi dira; hau da, lineak ahalik eta zuzenenak egin nahi dira 90°-ko kurbak ekiditeko. Izan ere, egungo trazaduran kurba ugari omen daude, eta horrek autobusa moteltzen omen du. Neurri horrek derrigorrezko egingo du autobus-aldaketak egitea.

Bestalde, esan zuten geralekuen arteko distantzia ideala (gehienezkoa) 300 metrokoa dela, eta, hori dela eta, 144 geraleku aldatu beharko direla tokiz.

Neurri horiek Salvador Ruedaren proiektuan oinarritzen dira. Salvador Rueda Bartzelonako Hiriko Ekologia Gelako zuzendaria da. Gasteizko udalbatzak dio garraio publikoa era-

bat aldatuko dela proposamen horiek gauzaten direnean, 17 autobus berri gehitzen direnean eta tranbia Abetxukora iristen denean. TAO gunea zabaltzeaz ere hitz egin zen, bai eta prezioak igotzeaz ere.

Bukatzeko, eztabaida sakona egin zen, eta ezgaitasuna dugun pertsonen kolektiboak eskatu genuen neurriak har zitezela gure parte hartzea bermatzeko, bai eta guk ordezkaten ditugun pertsonen garraioa ere bermatzeko ere.

Eginaren eginez adierazi zuen gure arteko distantzia handiagoak zailtasunak eragin ditzakeela, gehiago ibili beharko dugulako horietara iristeko, eta horrek negatiboki eragin dezakeelako ibiltzeko zailtasunak dituztenengan; autobus-aldaketekin ere berdin gertatzen da.

Aparkatzeko txartela duten ezgaitasuna duten pertsonen beren ibilgailuekin trafiko mugatuko (bizilagunak, zamaanak, larrialdiak, garraio publikoa) etxadi handietara sartzeko aukera izan zezatela ere eskatu zen.

Autobusen egungo arazoak mahai-gaineratu ziren: espaloietan sarrera-plataformak jartzeko beharra, soinu-sistemak, mugikortasun murriztua duten pertsonen zuzendutako espazioak ez errespetatzea, etab.

Gai honen inguruan egin nahi duzun ekarpen oro eskertuko dugu, eta Udalari helaraziko diogu Irisgarritasunari buruzko Udal Kontseiluaren bitartez; guztiontzako garraioa hobetzeko ahaleginak egingo ditugu, guztiok berdintasunez parte hartu ahal izatea bermatuko duena.

TUVISAren mapa berria honela geratuko da uda honetarako:

- 1. LINEA:** linea zirkularra; Zaramaga auzoa eta campusa lotuko ditu, eta Etorbidetik pasako da.
- 2. LINEA:** kanpoko eraztuna, egungo linea periferikoaren antzekoa.
- 3. LINEA:** linea bertikala. Eskalmendi gunea lotuko du Aretxabaletarekin, eta Betoñon sartzeko adar bat izango du.
- 4. LINEA:** linea bertikala; Armentia eta Lakua lotuko ditu.
- 5. LINEA:** zeharkako linea; Salburuatik Jundizera joango da, eta "anezka" zerbitzu bat izango du fabriketara joateko.
- 6. LINEA:** zeharkakoa baita ere. Salburua eta Zabalzana lotuko ditu.
- 7. LINEA:** zeharkakoa; Sansomenditik irtengo da, eta Errekaleorren bukatuko da.



Topaketa Politikoeekin

Otsailaren 18an, El Pilar Auzo Etxeko erakusketa-gelan, ARABAKO EZGAITASUN-ELKARTEEN PLATAFORMAK gonbidapena egin zien martxoaren 1eko hauteskundeetan parte hartuko zuten talde politikoei mahai-inguru batean parte hartzeko; mahai-inguruan ezgaitasunarekin erlazionatutako gaiak eztabaidatuko eta landuko ziren, beren hauteskunde-programetan egoera horiek nola ikusten dituzten jakiteko.

ARABAKO EZGAITASUN-ELKARTEEN PLATAFORMA topaketarako talde bat da, eta ARAZOAK, ASPACE, EGINAREN EGINEZ, ASPASOR, ARABAKO GORRAK, ATECE, ITXAROPENA eta DOWN ARABA elkarteetako eta EB/IU-ko ezgaitasun-taldeko ordezkariak parte hatzen dute bertan. Interes komuneko gaiak lantzen dituzte, beti ere, aldarrikapenaren ikuspegitik, eta helburuetako bat da politika orokorrean aurrerapenak lortzea ezgaitasun fisikoa, zentzumen-ezgaitasuna, adimen-ezgaitasuna, ezgaitasun psikikoa eta komunikazio-ezgaitasuna duten pertsonen aukeraberdintasunari dagokionez.

Hori horrela, gonbidapena onartu zuten honako alderdi politikoko hauek zerrenda-buruek eta ordezkariak: PP: Carmelo Barrio,

PSE-PSOE: Jesús Loza,

EAJ/PNV : Javi Carro,

EA: Antxon Belakortu,

EB/IU: José Miguel Fernández,

Silvia Apodaka (eginez) eta Alberto Iglesias (Arazoak) izan ziren ekitaldiko aurkezle eta moderatzaile. Prestatutako gidoiari jarraitu zioten, eta lortu zuten bertaratutako politikariek, galdera-txanden bitartez, zenbait aukera edo gaien azterketa azaltzea ezgaitasunarekin lotutako honako

gai hauen inguruan: **sentsibilizazio soziala, hezkuntza, osasuna, lana eta etxebizitza, eta beste "azken gai" bat, mahaian esandakoa hauteskundedetako agintza gisa soilik geratuko ez zela bermatzeko.**

Eskuragarri ditugu zuretzat topaketako laburpena eta alderdi politikohorien programak (**asteazken goizetan, 10:00etatik 12:00etara**). Gure borroka etengabea izango da, bai hauteskunde-garaietan, bai eta legegaldietan zehar ere. Pentsatu nahi dugu etorkizunean ez dela beharrezkoa izango taldeen presioa herritarren aniztasuna agerian uzteko, ez eta guztiok lehen-mailako herritar gisa tratatuak izateko eskubidea dugula azpimarratzeko ere.



Silvia Apodaka eta Alberto Iglesias J. Lozarekin (PSSE-PSOE), C. Barriorekin (PP) eta J. M. Fernándezekin (EB/IU), topaketako une batean.



Belakortu (EA) eta Javi Carro (EAJ/PNV), moderatzaileen parean.

UDAL ORDENANTZA, BATEZ ERE ETXEBIZITZA KOLEKTIBO GISA ERABILTZEN DIREN ERAIKINETARAKO IRISGARRITASUN-BALDINTZAK HOBETZEARI BURUZKOA VITORIA-GASTEIZ

Vitoria-Gasteiz tramiteak egiten ari da batez ere etxebizitza gisa erabiltzen diren eraikinetako irisgarritasuna hobetzeko ordenantza bat onartzeko. 2009ko urtarrilaren 30ean, Udaleko osoko bilkurak ordenantzaren testuaren hasierako onespena egin zuen. Entzunaldi publikorako 30 eguneko epeari hasiera eman zitzaion, alegazioak aurkeztu ahal izateko. Behin aurkeztutako alegazioak aztertuta, Batzordeak eta Osoko Bilkurak onartu behar dute, eta argitaratu egin behar da.

Hasiera batean onartutako testutik, zenbait gai ondoriozta ditzakegu. Ordenantza honen helburua da irtenbideak ematea irisgarritasun-araudia aplikatu ezin den egoeretan, bai eta zenbait elementu jartzea ere, hala nola, arrapalak eta igogailuak, egoera hauetako bat bizi duten jabeen erki-degoetan: traba arkitektonikoak kentzeko beharra edukita, horretarako zailtasunak edukitzea **lur pribatua erabili behar delako, lonjak, adibidez, eta jabeak baimenik ematen ez delako, edo merkatukoa baino askoz ere altuagoa den prezioa ezartzen delako, edo eta lur publikoa erabili behar delako.**

Ordenantzak bi egoera horiek hartzen ditu kontuan eta arautu egiten ditu, **bai lur publikoa uztea, bai eta lur pribatua desjabetzea ere**, eraikinen irisgarritasuna hobetzen lagundu behar duten elementu horiek jartzeko.

Eginezek zenbait alegazio egin dizkio testu horri, jarraitu beharreko prozedura eraginkorrago eta errazago bihurtzeko, kontuan hartu behar diren bermeen kaltetan izan gabe; helburua da ordenantza hau elementu eraginkor izatea, gure hirien irisga-



rritasuna hobetzeko, eta ezgaitasuna duten pertsonen kolektiboaren diskriminazioa desagerrarazteko.

Eginezek testuari egindako alegazioek honela eragiten diote ordenantza-proiektuaren zati batzuei:

1. **Zioen azalpenari dagokionez**, arauaren espiritua islatu nahi da, bai eta hori gauzatuko den arau-testuingurua ere, eta uste dugu erreferentzia egin behar zaiola **Ezintasuna duten pertsonen aukera-berdintasunari buruzko Legeari**, arau honetako 1. tituluan jasotzen den konstituzioko 14. artikulua zabaltzen duenari, edo eta **ezintasuna duten pertsonentzako Nazio Batuen Konbentzioari**, duela gutxi berretsi zenari; irisgarritasun-baldintzak betetzea Giza Eskubideak babestea dela aitortzen du konbentzio horrek, eta horiek ez betetzea diskriminazio garbia dela dio. Erreferentzia egin behar zaie, baita ere, jabetza horizontala arautzen duten arauari, horiek kontuan hartu behar baitira.

2. **Xedeari, aplikazio-eremuari eta jabari publikoaren okupazioari dagokionez**, Eginezek uste du higiezin barnean lokal komertzialak ere badaudela, **publiko osoari irekita**

daudenak, eta irisgarritasun-araudia bete beharko luketenak; are eta gehiago horiek bete ezin direla esaten badute, elementu komunen, solairuen eta jabeen erkidegoen ezezkoaren aitzakian. Egoera horiek ere kontuan hartu behar dira, eta, beharrezkoa bada, lur publikoa utzi behar da, edo eta lur pribatua desjabetu, irisgarritasuna bermatzeko.

Oztopoak desagerrarazteko jarritako elementuen instalazioak eragindako **jabari publikoaren okupazioari** dagokionez, ez da ulertzen denbora baterako okupazioa kontuan hartzea, eta ondoren kentzea.

Baimen bat eragin duen beharra desagertzen denean soilik kendu beharko litzateke baimen hori; jabe onuradunak ordezkatzeko edo gehiagotzeko aukera egon beharko litzateke elementua mantentzeko beharra dagoela ziurtatuz gero.

- 3. Irisgarritasuna bermatzeko, eraikinetan jartzen diren elementuei dagokionez**, hala nola, arrapalei, igogailuei, plataforma igogailuei eta abarri, ez da zehazten zein den elementu egokiena, edo zein elementu ematen duen araudian jasotako irisgarritasun-baldintzak, edo praktikotasun-baldintzak, bermatzeko aukera. Laguntza teknikoak beste aukerarik ez dagoenean soilik hartu behar dira kontuan. Hori bestela eginez gero, ez litzateke beteko 68/2000 Dekretuaren, Irisgarritasuna Sustatzeko Legea garatzen duenaren V. eranskina.

Irtenbide egokiena zein den arazoitzeari dagokionez, gure ustez gai teknikoa da hori; udaleko teknikoek hartu behar dute erabakia, beraz, horiek adieraziko dute zein den modu egokiena eta eraginkorrena egoera bakoitzeko aukera teknikoak eta irisgarritasuna konbinatzeko.

- 4. Eraikuntza-baldintzei dagokionez**, irisgarritasuna bermatzeko, askotan ez da nahikoa elementu horiek jart-

zea, eta beste obra osagarri batzuk ere egin behar izaten dira pertsona guztiak autonomiaz sartu ahal izateko kanpotik eraikin barrura.

- 5. Desjabetzei dagokionez**, aurretiko kontsulta bat egin behar da; gure ustez, aurretik eta derrigorrez egin behar da kontsulta, eta Udalak zehaztu behar ditu jarraitu beharreko pausoak eta prozedura. Bestalde, udalari dagokio, beste irtenbiderik ez badago, desjabetzeak agintzea.

Gure ustez, **Udalak zehaztu behar ditu** honakoak: eraikinerako sartzeko, kanpoaldean obrak egitea komeni ote den, irisgarritasun-baldintzak betetzeko zer elementu jarri behar den eraikinean eta nola, hala ezarritako egoeretan, udal teknikariak dagokion salbuespena eskatzea Irisgarritasunaren Euskal Kontseiluari, zerbitzu berri bat edo oztopoak desagerrarazteko elementuak jartzeko lur publikoa edo pribatua behar ote den zehaztea, eta, horrela izanez gero, baita eskatzaileak horretarako nola jokatu behar duen ere. Araudi hori behar bezala aplikatzeko, gauza asko hartu behar dira kontuan, eta, garbi dago Administrazioak gidatu behar dituela mota horretako prozedurak; herritarrek ez dute tramite amaigabeetan galdu behar, ez eta denbora alferrik galdu ere. Arautu nahi diren obrek berebiziko garrantzia dute mugikortasun murriztua duten pertsonentzat.

Azkenik, eta ordenantza hau aplikatu ahal izateko, **araua aplikatzea ahalbidetuko duten laguntzak** eman behar dira, "salbuespen ekonomikoengatik" araua bete gabe geratu ez dadin. Bestalde, irisgarritasunaren alorreko teknikari bat behar da; Aialako aranean, adibidez, zenbait udaletxetan badaude horrelako teknikariak, eta horiek betearazten dute irisgarritasun-araudia. Teknikari horren lana izango litzateke, beste funtzio batzuen artean, ordenantza honek araututako prozedura zuzentzea.

Fekoor-ek Laguntzarako Teknologiai eta Autonomia Pertsonalariburuzko mintegi bat antolatu du

Jardunaldiak otsailaren 23an eta 24an izan ziren, Barcelo-Nervion Hotelean, hainbat pertsonarentzat antolatuta: erabiltzaileentzat, gutxitasunak dituzten pertsonekin lan egiten duten profesionalentzat, eta mota horretako teknologietan interesa duten pertsonentzat. Mintegian sektoreko profesionalak eta Lourdes eta Mentxu Arrieta ahizpek hartu zuten parte. Arrieta ahizpek, horretan eredu direnez, komunikatzeko mugak gaindi daitezkeela frogatu ziguten.

Fekoor-ek Laguntzarako Teknologiai eta Autonomia Pertsonalari buruzko jardunaldiak antolatu zituen otsailaren amaieran, Osoa y Bj Adaptaciones enpresaren laguntzaz. Enpresa horrek etxebizitzaren irisgarritasunaren esparruan egiten du lan.

Gutxitasunak dituzten pertsonentzat eta haiekin lan egiten duten profesional eta teknikarientzat antolatutako jardunaldi horietan, laguntzarako teknologia berrien esparruko adituen esperientziaren gain, Fekoor-ek esparru horretan duen esperientziaren ere ikasi ahal izan zuten bertaratu zirenek, Fekoor-ek 30 urte baitaramatza gutxitasunak ditugunon autonomia pertsonala sustatzen, eta oso ongi ezagutzen baititu gure kolektiboaren beharrak.

Otsailaren 23ko egitaraua autonomia pertsonalari buruzkoa izan zen. Javier Odriozolak, laguntzarako teknologien ingeniari denak, kasu praktikoak eta erakustaldiak baliatu zituen bere hitzaldian, "etxeetako ingurua kontrolatzeko" irtenbide teknikoak aurkezteko. Pertsona batek teknologia horiek behar dituen unean bertan jar daitezke.

Eraikin zaharretan eta komun txikietan egokitutako komunak jarri ahal izateko garatu dituzten irtenbideak ere azaldu zituen Odriozolak. Irtenbide horien aurrekontua, gainera, arazoizkoa da, eta egin beharreko lanak ahalik eta gutxienak izan daitezzen saiatzen dira.

Gai horri dagokionez, ura kanalizatzeko sistema baten patentearen garrantzia azpimarratu behar dugu. Sistema horren bidez, ez dago zipriztinik eta lurtean egon daitekeen edozein oztopo kentzen da. Komuneko lurzoruko



guztia maila berean geratzen da, eta horri esker, garestiagoak eta hain funtzionalak ez ziren irtenbideak gainditu ahal izango ditugu.

Otsailaren 24ko egitaraua Komunikazio Handigarriari eta Alternatiboari eta Ordenagailua erabili ahal izateari buruzkoa izan zen, ordenagailua besteekin eta ingurunearekin erlazionatzeko baliabidea izan baitaiteke. Informatikak autonomia pertsonala

hobetzeko ematen dizkigun aukerak ikaragarriak dira. Ordenagailuari esker, etxe bateko elementuak kontrola ditzakegu, eta horrela autonomia pertsonala handitu. Besteak beste, hauek kontrola ditzakegu: ohea (eskararik ez sortzeko), argiak, telefonoa, atezain automatikoa, telebista, alarma-sistema eta telelaguntza.

Laura Etxanizek, Osoa y Bj-ko Komunikazio Handigarri eta Alternatiborako eta Ordenagailuetarako Irigarritasunerako arduradunak, baliabide hori integraziorako elementu gisa erabiltzen du, erabilera-aukera asko baititu.

Gaurkotasan handiko gaiak landu ziren jardunaldietan, eta inolako ezbaierik gabe, autonomia pertsonal handiagoa lortu ahal izateko ideiak plazaratu ziren bertan. Ideia horiei esker, gutxitasunak dituzten pertsonak ahalik eta bizitza beteena izan dezakete, bai eta gizartearen parte hartzeko aukera ere.

Inguruak edonor bilaka dezake minusbaliatu, pertsona horrek gutxitasunak izan edo ez izan. Inguruen diseinuak egokitu behar du aniztasunera, eta ez alderantziz.

“Inguruaren kontrol” deituriko baliabideari esker, gutxitasunak dituzten pertsonen autonomia hobetu dezakegu, horretarako egokiak diren teknologiak aplikatuz gero. Hori dela eta, beharrezko tresnatzat hartu behar dugu, eta ez ezinbestekoa ez den luxutzat. Inguruak kontrolatzeak aukera ematen die gutxitasunak dituzten pertsonari ohetik, gurpildun aukeratik eta abarretatik beren etxeetan dituzten eta egunero erabili behar izaten dituzten elementuak erabat kontrolatzeko (argiak, ohea, pertsianak, ateak, leihoak, interfonoa, komuneko katea, etxetresna elektrikoak, garabia, telefonoa, etab.).

Teknologia egokien laguntzaz pertsonen bizi-kalitatea eta autonomia-maila handitu daitezke, eta horrez gain, pertsona horien garapen sozial eta laborala ere erraztu daiteke, komunikatzeko eta eguneroko jardueretan garatzeko dituzten aukerak hobetuz.

Horrez gain, pertsona horien autoestimua hobetzen dute, laguntzen beharra

gutxitzen dute, eta zenbait kasutan, gutxitasunak dituzten pertsonak bizitza erabat independentea izan dezakete.

Begiek hitz egiten dutenean

Hori da Lourdes eta Mentxu Arrieta-ren kasua. Arrieta ahizpek independentzia-maila handitzea eta bizi-kalitatea hobetzea lortu dute, bizirauteko gogoari, mugak gainditzeko nahiari, adimenari eta teknologia berrien laguntzari esker.

Arrieta ahizpek 42 eta 47 urte dituzte, eta jaiotzetik atetosis doblea dute. Gaixotasun horrek motrizitate-sistema kontrolatzeko ezintasuna eragiten du, hitz egitea galarazteraino eta eskuak mugitzeko zailtasunak ere izateraino. Medikuek hilabete gutxiz biziko zirela esan zuten arren, urte hauetan guztietan erakutsi duten modura, bizitzeko grinak gaixotasunari aurre egiteko indarra eman zien.

Mentxuri gaixotasunak ez zion hitz egiten ikastea eragotzi, baina Lourdesek ezin du hitzez komunikatu jaio zenez geroztik. Hala ere, komunikatzeko beharrari eta berez zuten adimenari esker, komunikatzeko modu berriak sortu zituzten. «Inkomunikazioak eromenera garamatza», aitortu zuen Lourdesek. Haurrak zirenean muxuen, besarkaden eta kolpeen bidez komunikatzen ziren. Amak, Conchik, bazekien Lourdesek eta Mentxuk potentzial handia zutela, eta euskaraz eta gaztelaniaz irakurtzen eta idazten erakutsi zien. Garai hartan Arrieta ahizpek beste komunikazio-sistema bat, gutxi garatutakoa baina burutsua, sortu zuten. Lourdesek bere ahizpa Mentxuren besoan letrak idazten zituen, eta horrela komunikatzen ziren. Ondoren, Lourdesek gaur egun “komunikatzeko taula” esaten zaiona diseinatu zuen, eta taula hartan seinalatzen zituzten letrak eta hitzak. Orduan, Conchiri idazteko makina elektronikoa bat, bere herrian lehena, erostea otu zitzaion. Hartara, Lourdesek mugi zezakeen hatz bakarrak, ezkerreko hatz erakusleaz, idatz

zezakeen esan nahi zuena. Makina hari esker Mentxuk bere ikasketetan aurrera egin ahal izan zuen, eta Psikologia ikasketetan lizentziatu eta doktoratu zen EHUn. Makina harekin idatzi zizuten "Isiltasunaren ahotsa" izeneko bi poema-liburuak ere. Bien bitartean, Egile eta Editoreen elkartean erregistratuta dagoen "Arrieta metodoa" sortu zuten, ordura artekoak baino komunikazio-sistema berritzaileagoa eta txundigarriagoa. Metodo hura begien mugimenduan oinarritzen zen. Begietako mugimenduen bidez, Arrieta ahizpak alfabetoko edozein letra "marrazteko" eta esaldi konplexuak sortzeko gai dira.

Begiekin komunikatzen ikastea erraza dela diote. Bien nahia da komunikazio-metodo hau argitaratzea, beren antzeko egoeran dauden pertsoneri lagundu ahal izateko. Begiekin hitz egiten jarraitzen duten arren, gaur egun Lourdesek ordenagailu bat erabiltzen du, teklatuan idazten dituen hitzak ahots bilakatzeko.

Arrieta ahizpek komunikatzeko zailtasunen mugak gainditu dituzte, eta horri esker, lehen pertsonan eta umore handiz kontaktzen dute urte hauetan guztietan isiltasunaren aurka egindako borroka etengabea.

Fekoorrek eta Bizkaiko Kirol Egokituen Federazioak Bizkaiko II. Boccia Txapelketa antolatu dute

Kategoria guztietan lehen postuak lortu ondoren, Fekoorreko Kirol Elkarteko Boccia taldea gailendu zen txapelketan. Hori dela eta, gure taldea kirol honetako lehiaketa-zirkuituko talderik indartsuenetako bat bilakatu da.

Fekoorreko Boccia taldeak oso maila ona erakutsi zuen otsailaren amaieran Etxebarriko Kiroldegian (Bilbon) jokatutako Bizkaiko II. Boccia Txapelketan. Txapelketa hori Bizkaiko Kirol Egokituen Federazioak eta Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzaileak antolatu zuten.

Gure kirolariek duten mailaren erakusgarri da kirol horretako Euskadiko selekzioak Fekoorreko taldeko bi kide, Rosa Rebollo eta Iñaki Mentxaka, Estatuan antolatzen diren txapelketetan parte hartzeko deitu izana.

Etxebarriko txapelketan 23 kirolarik hartu zuten parte. Lehiakide horiek beren klubetan edo eguneko zentroetan jarduten dute diziplina paralinpiko horretan, eta hainbeste kirolari elkartu izanak kirol hori gure artean oso errotuta dagoela frogatzen du.

Txapelketa horretan parte hartu zuten kirolariak hainbat taldetakoak dira: Bizkaiko Kirol Egokituen Federa-



zioak antolatzen duen Boccia kirol-eskola egonkorrekoak, "Bekoetxe" zentrokoak, eta "Arbolarte" zentrokoak (gutxitasun fisikoak dituzten Bizkaiko pertsonen Integrazioa eta Gaitzea lortzeko Bizkaiko Foru Aldundiak duen zentroa, Fekoorrek kudeatua).

Hauek dira txapelketa honetan parte hartu duten Fekoorreko Boccia K.E.-ko taldeko kideak: Ander Urbiola, Marco Antonio Sala, Jose Maria Gomez, Ricardo Pascua, Saioa Larramendi, Eugenio Fernandez, Antonio Garcia, Eulalia Sanchez, Amaia Olabarria, Alberto Aboitiz, Vanesa Sanchez, M^a Luisa Fidalgo, Barbara Sanchez, Iñaki Mentxaka eta Alberto Solueta.

BC1 kategoriarako faborittoa Richard Pascua bazen ere, Eugenio Fernandezek lortu zuen lehen postua, Pascua menderatzeko aukera guztiak baliatu baitzituen Fernandezek (agian, bere buruarengan gehiegizko konfiantza zuen Pascuak).

BC2 kategorian, Barbara Sanchezek erraz menperatu zituen aurkari guztiak. Eulalia Garcia izan zen BC3 kategoriako garailea. Azken kategoria horretan, kanaleta bat erabiltzen da bolak jaurtitzeko.

BC4 kategorian, Iñaki Mentxaka izan zen garaile, eta BC5 kategorian, aldiz, Alberto Soluetak lortu zuen lehen postua.

Bocciaren Historia

Grezia Klasikoan sortutako kirol paralinpikoa da Boccia. Europako iparraldeko herrialdeek 70eko hamarkadan berreskuratu zuten, gutxitasun fisikoak zituzten pertsonen praktika zezaten. 1988an kirol Paralinpiko bilakatu zen Seuleko Jokoetan.

Orduz geroztik asko garatu da kirol hori, eta garapen horren lekuko dira, besteak beste, gaur egungo kirol lizentzien kopurua eta joko paralinpikoetan lortutako emaitzak.

Petankaren antzeko jokia da, eta gurgildun aulkian dauden pertsonak bakarrik lehiatzen dira. Gainera, garun-perlesia edo gutxitasun fisiko gogorrek dituzten pertsonen kiroletan jarduteko aukera ematen dei.

Hori dela eta, asialdiaz eta denbora libreaz gozatzeko tresna edo maila

goreneko kirol-jarduera izan daikete Boccia.

Zehaztasunezko eta estrategiazko jokia da, eta jokoaren arauak nazioarteko araudian biltzen dira.

Kirol honen elementuak sei bola gorri eta sei bola urdin (jokalari bakoitzak kolore bat du) eta bola zuri bat ("diana") dira. Bola bakoitzak 8'3 cm-ko diametroa eta 270 gr-ko pisua du.

Partida bakoitzean kirolari bakoitzaren helburua bere bolak "dianara" gerturatzea eta aurkarietara ahalik eta abantaila handiena (puntuazioa) lortzea da. Partidek 4 edo 6 partzial izaten dituzte, bakarka, bikoteka edo taldeka jokatzeko diren kontuan hartuta.

Kategoriak kirolarien gutxitasun-mailaren arabera ezarri ohi dira.

Gutxitasun gogorrenak dituzten kirolarien kategorian, kanaleta baten laguntza izaten dute partaideek. Kirolariak norabidea hautatu ondoren, pilotu-laguntzaileak kanaleta horretan jartzen du bola. Bakarkako, bikotekako edota taldekako probak daude, eta kirol mistoa da: hau da, gizonezko eta emakumezkoak elkarren aurka lehiatzen dira.



Lonja eta etxabeek igogailuak edo bestelako laguntza teknikoak instalatzeko beharrezkoa den espazioa utzi behar dutela eta berriztatze-lanak ordaintzen lagundu behar dutela ebatzi du Auzitegi Gorenak

Bizkaiko eta Gipuzkoako bi bizilagun-komunitatetako auziak ebatzi ondoren, Gorenak jurisprudentzia ezarri du Espainia mailan. Komunitate horiek FEKOOREko Aholkulari Juridikoak ordezkatu ditu.

Auzitegi Gorenak FEKOOREko Aholkularitza Juridikoko arduradunaren aldeko epaia eman du, eta epai horrek jurisprudentzia ezarriko du komunitate batean igogailuak instalatzen direnean lanak nork ordaindu behar dituen erabakitzekeo garaian.

Gorenak Bizkaiko Ermua herriko etxebizitza bateko bizilagunek zuten gatazka bati buruzko epaia eman du. Epaia horretan, eraikin batean igogailua jartzen denean, etxabe eta lonja komertzialetako jabeek dagokien zatia ordaindu behar dutela zehazten da.

Epaileek *“jabe guztiek, salbuespenik gabe, duten partaide-kuotaren arabera dagokien zatia ordaindu behar dutela”* erabaki dute.

Epaia horri esker, Jabetza Horizontalaren Legearen interpretazio subjektiboak amaitutzat eman ditzakegu. Lege horretan ezartzen denaren arabera, nahikoa da eraikin batean gutxitasunen bat duen edo 70 urte baino gehiago dituen bizilagunen bat izatea, igogailu bat jartzea gehiengo sinplez onartu ahal izateko.

Azken urte hauetan, gai horri buruz epai kontraesankorrak eman izan dituzte lehen auzialdiko zenbait epaitegitan, bai eta Espainiako probintzia-uzitegiaren batean ere.

8 urte zain

Fekoor-eko Aholkularitza Zerbitzuko arduraduna den Guillermo Trekuk irabazitako kasu hau 2001eko martxoan jarri zen abian. Izan ere, Bizkaiko Ermua herriko bizilagunen komunitate batek adostu zuen etxabe bateko jabeak bi igogailuren instalazioa or-

daindu behar zuela, eta etxabearen jabeak auzitegietan erabaki horren kontra egitea erabaki zuen.

Lehen auzialdiko epaileak helegileari eman zion arrazoiak. Errekurtso-egileak ez zuela instalazioa zertan ordaindu eta komunitateak epaiketaren kostuak ordaindu behar zituela ebatzi zuen. Bizilagunek helegitea aurkeztu zuten Bizkaiko Auzitegian eta, bigarren aldian hartan, epaia beren aldekoa izan zen, igogailua *«eraikinaren bizigarritasunerako eta erabilerarako hobekuntza»* zela eta *«igogailua jartzeke obrak jabeekide guztiek ordaindu behar»* zitzutela ebatzi baitzuen epaileak.

Etxabearen jabeak Auzitegi Gorenara jo zuen orduan, *“onartutako berrikuntzak ez zuela bere egoera hobetzeko balio izango”* alegatuz eta antzeko kasu askotan *«epai kontresankorrak»* eman zirela argudiatuz.

Zortzi urtez itxaron ostean, auzitegi gorenak kasazio-errekurtsoa gaitzetsi du, eta komunitateari eman dio arrazoiak. Hori horrela, helegileak dagokion zatia ordaindu beharko du. *“Epaileek kontuan izan dute gizartearen errealitatearen eta traba arkitektonikoak desagerrarazteko beharrezko arabera interpretatu behar dela legea”* eta *“botere publikoak gutxitasun fisikoak dituzten pertsonen eskubideak gero eta gehiago babesten dituztela”*, adierazi dute.

Horrez gain, igogailua eraikuntzarako funtsezko elementua dela ere adierazi dute epaileek. Igogailuak eraikinaren balioa handitzen duela gaineratu dute, eta horrek jabe guztiei mesede egiten diela. Azken argudio hori kontuan hartuta, *“gehiegikeria izango litzateke igogailua jartzeke eragingo*

lituzkeen gastuak jabe guztiek ez ordaintzea". Epaiazen azken zatian ebazpen horrek «**jurisprudentzia-doktrina**» ezarriko duela azaldu du Auzitegi Gorenak.

Zortasuna

Auzitegi Gorenak Fekoor-eko ahokulari juridikoak ordezkatzan duen beste komunitate baten aldeko epaia eman du. Epaian esaten denez, *“erakin bateko jabe guztiak (etxabe eta lonjetakoak barne) beren jabetzetan irisgarritasuna bermatzeko eta traba arkitektonikoak gainditzeko ezinbestekoak diren zortasunak jasatera behartuta daude”*.

Auzitegi Gorenako epaileak *“jabetza-**ren okupazio iraunkorra**”* ZORTASUNTzat hartu du, eta *Gorenaren epai hori izan da horrela ebatzi duen lehena*.

Zortasuna jasan behar duen jabeari eman beharreko kalte-ordaina bizilagun guztien artean ordaindu beharko dutela ere irakur daiteke epaian, eta horrez gain, irisgarritasun-lanak onartzeko gehiengo simplea lortzea nahikoa dela ere zehazten da bertan.

Gorenak hartutako erabaki horiek oso garrantzitsuak dira **Guillermo Trekuren** aburuz, *«dagokien zatia ez ordaintzeko edo zortasuna onartzen ez dutelako bide judiziala hartzen duten etxabe eta lonja komertzialetako jabeek ez baitute dagoeneko inolako babesik izango»*.

FEKOORREN II. JARDUNALDIAK

“Giza eskubideak eta gutxitasunak: komunitatean bizitza independentea lortzearen alde”

Datorren maiatzaren 6an FEKOORek urtero antolatzen dituen jardunaldien bigarren edizioa izango da Bilboko Euskalduna Jauregian. Jardunaldi horietan gutxitasun fisikoak dituzten pertsonen gehien interesatzen zaizkien egungo gaiak jorratuko ditugu.

Aurtengoan, aniztasun funtzionala giza eskubidetzat hartzearen auzia landuko dugu. Ikuspegi horri esker, gure kolektiboaren eskubideak eraginkortasunez gauzatzeko ezinbestekoak diren oinarriak aztertuko ditugu, zehatz-mehatz: irisgarritasun unibertuala, lan mundurako sarbidea izatea, gizarte-zerbitzuak, eta autonomia pertsonala nahiz komunitateko partaidetza aktiboa sustatzeko baliabideak.

Aurreko urtean bezala, aurrean ere eztabaida-foroa hainbat pertsonarentzat antolatu da: gutxitasunak dituzten pertsonak, esparru horretan eskumenak dituzten Administrazioak, eta gutxitasunak dituzten pertsonen eskubideen alde eta beraien bizi-kalitatea

hobetzearen alde lan egiten duten profesionalak.

“Giza Eskubideak eta gutxitasunak: komunitatean bizitza independentea lortzearen alde” izenburupean, komunitatean baitan norberaren autonomia sustatzeko joera berrien eta gaur egungo ekimenen berri emango digute ospe handiko hizlariek.

Komunikabideetan gero eta gehiago jorratzen diren gaiak dira, eta inolako zalantzarik gabe, gure kolektiboarentzat oso interesgarriak.

Hori guztia kontuan hartuta, Fekoorreko kideok datorren maiatzaren 6an Bilboko Euskalduna Jauregira agertzerara dei egin nahi dizuegu. Horretarako, bide hauek erabiliz eman dezakezue izena:

Tel. 94 405 36 66

Faxa 94 405 36 69

E-maila: fekoor@kekoor.com

Elkartze- Mugimendua

- Elkartu-k martxoaren 7an egin zuen bere Ohiko Batzar Nagusia. Ekitaldia elkarteak Donostian dituen lokaletan egin zen. Federazioa osatzen duten elkarte guztiak joan ziren batzarrera, eta ondoren aipatzen den gai-zerrendako puntuak aztertu ziren (guztiak aho batez onartuko ziren):

- ✓ Aurreko akta irakurtzea eta onartzea.
- ✓ 2008ko jarduera-txostena eta balantze ekonomikoa irakurtzea eta onartzea.
- ✓ Federazioan dauden elkarten 2008ko jarduera txostena eta balantze ekonomikoa irakurtzea.
- ✓ Elkartean-en 2008ko jardueren laburpena.
- ✓ Elkartu-ren 2009ko jardueren programa.
- ✓ 2009ko gastuen aurreikuspena onartzea.
- ✓ Galde-eskeak.

- Batzarraren ondoren, bertaratutakoek bazkaria izan zuten, eta horretan Federazioa osatzen duten elkarten ezagutzan sakondu eta esperientziak partekatu zituzten.

Era berean, azpimarratu behar da batzarra egin baino lehen aukera izan genuela Xabier Urmeneta gurekin izateko; pertsona hori Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikaria da, eta Etxetek programa aurkeztu zigun: laguntza teknikoan edo produktu lagungarrien foru-programa.

Opor Programa

- Aurten ere Elkartuk, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Sailaren laguntzarekin, gutxitasun fisikoa eta sentsoriala duten pertsonentzako opor-programa antolatu du, bestela oporrak izateko aukerarik izango ez luketen pertsonak bereziki gogoan hartuta.

Beharbada zuetako batzuek jakingo duzue, martxoaren 3an, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitzan egindako prentsaurreko batean, eta Gizarte Ongizateko diputatua gurekin genuela, programa hau iragarri genuen. Orain, Elkarte buletinaren bidez helarazten dizuegu.

NORA	TXANDAK	NOIZ
BENIDORM	1°	Maiatzaren 2tik 16ra arte
BENIDORM	2°	Ekainaren 20tik uztailaren 4ra arte
BENIDORM	3°	Abuztuaren 17tik 31ra arte
BENIDORM	4°	Urriaren 18tik azaroaren 1era arte
SALOU	1°	Maiatzaren 30etik ekainaren 13ra arte
SALOU	2°	Uztailaren 11tik 25era arte
LONDRES		Abuztuaren 4tik 12ra arte
FUENGIROLA		Irailaren 12tik 26ra arte
TENERIFE		Urriaren 3tik 17ra arte
VALENTZIA (Zientzien Museoa)		Apirilaren 26tik 29ra arte
POITIERS		Irailaren 6tik 9ra arte

Bidaiek, hoteletako egonaldiak eta egin daitezkeen jarduera guztiak irisgarritasun-baldintzak betetzen dituzte, bai eta kasu bakoitzeko beharrezko laguntza-premiak ere.

Espero dugu leku horietara doazen pertsona guztiak pozik gelditzea.

Ordezkatze-Lana

- Elkartuk gutxitasun fisikoa duten pertsonak gizartean parte hartzeko dau den zenbait organo eta forotan ordezkatzen jarraitzen du. Ondoren, azken hilabeteetan izandako esku-hartze nagusiak aipatzen ditugu:

- ✓ Hileko hirugarren astearteetan gure ohiko bilerak egiten jarraitu dugu.
- ✓ GIZLOGA (Gipuzkoako garraioa eta logistika garatzeko herritar- eta enpresa-foroa), urtarrilaren 3an.
- ✓ Gipuzkoako Foru Aldundiaren bizikletaren kontseilua, urtarrilaren 27an.
- ✓ AENEAS proiektuaren bilera: garraio publikoaren zerbitzu-eskaintza zabaltzea, adin nagusikoei egokituta, eta sarbide zaila duten auzoetan; otsailaren 10ean.
- ✓ Irungo Gizarte Ongizateko Aholkularitza Kontseilua, otsailaren 11n.
- ✓ Donostiako Udaleko Gizarte Kontseilua, 2008ko ekainaren 25ean eta 2009ko urtarrilaren 27an; Elkartu kontseilu horretako eskubide osoko kidea da.
- ✓ Gipuzkoan gutxitasuna duten pertsonen kontseilua, uztailaren 18an (2008).
- ✓ Zenbait udaletan, hiri-plangintzarako udal-kontseilu askotan parte hartu dugu: Eibarren, Irunen...
- ✓ Coamificioa-k eta Predif-ek Madrilen dituzten egoitzetan egindako osoko bilkuretan parte hartu dugu.